A LOS LIBROS Y A LAS MUJERES CANTO

MARIA ELORZAren film bat

TXINTXUA films

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BASQUE. AUDIOVISUAL.

ETORKIZUNA DRAIN the future

ZINEBI 63 ZINEBI Networking Award

MAFIZ MÁLAGA WIP



AURKIBIDEA

SINOPSIA	3
FILMAREN FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA	4
ZUZENDARIAREN OHARRAK	5
FILM HAU LORATEGI BAT IZATEKO ARRAZOIAK	6
PERTSONAIAK	8
ZUZENDARIA	10
EKOIZTETXEA. TXINTXUA FILMS	11
HARREMANETARAKO DATUAK	12

SINOPSIA

Emakume bati ia ¨Avioneta¨ izena jarri zioten. Beste batek, liburutegi bat izan zuen bere kotxeko atzeko eserlekuan. Besteak, etxeko liburutegiko apal errebeldeen ondorioz hatz bat hautsi zuen. Zigarrogileek irakurketak entzuten dituzte lanean ari diren bitartean. Plantxagileek poemak gogoratzen dituzte. Horiei guztiei kantatzen diet.

Suaren, uraren, sitsaren, hautsaren, ezjakintasunaren eta fanatismoaren aurka, emakume armada anonimo batek liburuak zaintzen ditu. Erresistentzia intimo bat da, epikarik gabekoa, iraultzarik gabekoa, armarik gabekoa.

FITXA ARTISTIKOA

TONINA DEIAS
LORETO CASADO
WALTRAUD KIRSTE
VIKI CLARAMUNT
ANNE ELORZA

FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza eta gidoia : MARIA ELORZA
Argazkia eta Muntaia: MARIA ELORZA
Soinua MARIA ELORZA eta ANNE ELORZA
Ekoizleak: MARIAN FERNÁNDEZ PASCAL eta KOLDO ALMANDOZ

DATU TEKNIKOAK

72 min / Luzemetraia / Dokumentala / Kolorea /
J.B. Gaztelera - Italiera / 1.78:1

ZUZENDARIAREN OHARRAK

Liburuek hil dezakete?
Ba al dago erre beharko genukeen libururik?
Liburutegiak zergatik dira lorategiak?
Nortzuk dira liburutegien emakume zaindariak?
Zer esan nahi du emakumeei eta liburuei abestea?

Virgiliok –latinez idazten zuten poeta handienetakoa– Eneidari hasiera eman zion «Armei eta gizakiari» abestuko ziela adieraziz. Film honen izenburuarekin bertso horri keinua egin nahi izan diogu. Gure helburuak ia kontrakoak diren arren, badugu asmoa iraganeko tradizioarekin ere elkarrizketa egiteko.

Film hau lau pertsonaiaren eta horien liburuen erretratua da. Bizitza irakurtzen eta ikasten eman duten emakumeak dira, ondare oso baliotsua zaindu dutenak. Tonina bere liburutegi suntsitutik bizirik atera zen, eta Danteren irudi bilduma osatu du; Wal, txikitan sukaldaritza liburu bat eta biblia baino ez zituena, gaur egun Goethe-n inguruko espezialista da, eta horretaz hitz egiten du filosofoa aspaldiko laguna izango balitz bezala; Loreto irakurtzen dituen egile eta pertsonaiez mozorrotzen da, eta bere pasarte kuttunak errezitatzen ditu; eta azkenik Viki, garai batean Alderdi Laboristaren liburutegia maletategian eramaten zuena, probintzian barna liburuak langileei maileguz emanez. Bakoitzak literaturaren ikuskera desberdinak erakusten ditu, baina amankomunean dute horien bizitzetan zehar irakurketa oso garrantzitsua izan dela, eta bizitzarekin berarekin oso lotuta egon da.

Emakume horiek erretratatzeko irudien izaera ere ikertu behar izan dugu. Eta geure buruari galdetzen diogu irudi literario bat zer den, irudi zinematografiko bat zer den, eta nola pasa daitekeen bat izatetik bestea izatera. Hain zuzen, filmaren lan zinematografikoaren eta egiletzaren erdigunea bilaketa hori da.

Pasarte ezberdinen bidez, elkarrizketa batzuen bitartez, saiakera hurbilketak erabiliz, beste batzuetan tonu liriko batekin ere, protagonisten bizitzak betetzen dituzten irudietan sakondu nahi izan dugu. Batzuek izaera irudizkoa dute, eta beste batzuek oso izaera zehatza, apaletan liburuen ondoan jarri dituzten figuren forman, etxeetako hormetan zintzilik dauden grabatuen forman, liburu kuttunen orrialdeetako ilustrazioen forman.

Horri guztiari esperimentaziotik eta tonu arin, fresko eta umoretsu batekin heldu diogu, eta inola ez modu akademikoarekin. Oinarrizko eginkizun bat muntaketa lanetarako gorde da, non aurkitutako metrajea uztartzen den –zinema historian eta memorian sakontzen laguntzen dutenak– proiekturako espresuki grabatutako irudiekin: Super 8ko irudiak, pertsonaien ezagutza literarioarekin lotura duten lekuen irudiak, formatu digitalean grabatutako irudiak.

Film honetan gure hausnarketa da ea literaturak, zinemak edo irudiek nola lagunduko diguten bizitzan zehar, nola askeago sentiaraziko gaituzten; geure buruari galdetuko diogu eguneroko bizitzan irudimenen garrantzia nolakoa den, eta goi mailako kultura nola modu xumean transmititu daitekeen. Azkenik, aldarrikapen bat osatuko dugu; letren aldarrikapena izango da, eta, aldi berean, letrak erresistentzia ekintza baten bidez zaintzen dituzten emakume horien omenaldia.

FILM HAU LORATEGI BAT IZATEKO ARRAZOIAK

Liburutegiak lorategiak izateko arrazoiak:

1/ Uste duzu lantzen dituzula, baina bere kabuz hazten dira.

2/ Bietan denbora bere erara pasatzen da.

3/ Haize xume bat dabil beti.

4/ Haietan ibiltzen garela hostoak laztantzen ditugu.

5/ Biak kondaira eta izen misteriotsuz beteta daude.

6/ Frantsesek lorezaintza arloko hitz eder bat erabiltzen dute liburutegien garbiketen inguruan mintzatzeko. *Deshérber*: belar txarrak kentzea. Hitz berdea da; gaztelaniaz eta italieraz erabiltzen den *expurgo* hitza oso ezberdina da, gorrixka eta goibela. Liburutegiak ere maitasunez garbi daitezkeelako edo, aitzitik, amorruz suntsitu.



Edozein lagun Epikuro filosofoaren eskolaren atarira hurbiltzen zenean, kartel atsegin batekin egiten zion topo, honela sartzera gonbidatzen zuena: “Gonbidatua, hemen ondo egongo zara, hemen ondo egotea plazer handiena da”. Ikastetxea, lagunen arteko hausnarketa komunitarioa egiteko pentsatua, baratze erraldoi batez inguratuta zegoen, eta hortik hartu zuen izena: Lorategia.

Antzinatetik gaur arte iraun duen liburutegi bakarra Herkulanoko Papiroen Villarena da, eta testu epikureoak zituen, hain zuzen. Itxura guztiaren arabera, villa berak, bere lorategi izugarriarekin, greziar filosofoaren eskola errepikatu nahi zuen erromatarren garaian. Vesubio sumendiaren erupzioak hiria lurperatu zuen, baina papiroak osorik geratu ziren errautsen eta lokatzaren azpian, eta mendeetan zehar iraun zuten.

Papiroen Villa filmaren kokapen ezinbestekoetakoa izan da bi gai handi batzen baititu: sua eta lorategiak. Liburutegi ugari suntsitu ditu suak; Petrarkaren eta On Kixoteren liburu maiteak erre zitu; suntsitzeko tresna indartsua izan zen nazientzat; baina, behin batean, antzinako liburutegi bat ere salbatu zuen. Eta lorategiak: berriketa filosofikoen lekua, poeten etxeak, eta berak ere liburutegiak.

Batzuetan film honen protagonistek liburuak gordetzearen zentzua zalantzan jartzen dute, edo liburu batzuk kentzeko tentazioa sentitzen dute, baina, lorezain onek egiten duten bezala, liburuak inausi egiten dituzte, eta arretaz zaintzen dituzte. Ez dute literatura aldare hotzetan eta petrifikatuta erakusten, baizik eta, modu epikureoan, lagunekin elkartzeko eta eguneroko zoriontasuna bilatzeko erabiltzen dute.

PERTSONAIAK

Pertsonaia nagusiak emakume helduak dira, literaturazaleak, elkar ezagutzen dute, eta zuzendariaren familiarekin harreman estua dute. Hautatu genituen bakoitzaren istorioaren indarragatik, bizitzan zehar liburuekin izan duten loturagatik, eta bizitzari eta literaturari aurre egiteko moduen aniztasunagatik.

TONINA

Sardinia, 1955. Zuzendariaren ama, italiarra, eta literatura italiarran espezialista. Literaturarekin lehen harremana izan zuen izebaren mahai-zapiak tolesten ari zela; izeba horrek ia ez zuen eskola ezagutu. Izebak lisatzen ari zela, malkotan begietan errezitatu zituen lehen hezkuntzan ikasi ahal izan zituen lau olerkiak.

Urte asko geroago, Tonina liburuz inguratuta bizi da eta Danteren irudiak biltzen ditu. Duela gutxi bere liburu-apelen hondamenditik bizirik atera da, eta hondamenduak hatz bat bihurrituta utzi zuen. Pertsonaia guztien arteko lotura da, eta elkarrizketetan egoten da; tarteka kameraren atzetik ateratzen da bigarren narratzaile moduan bezala.

LORETO

Valladolid, 1952. Literatura frantseseko irakasle erretiratua, umorista izpiritua dauka. Aitak abiazioa maite zuen eta seme bat nahi zuen; Avioneta izena jarri nahi zion, baina hori egiteko baimenik eman ez ziotenez, hegazkinlarien zaindariaren izena jarri zion. Beraz, Loretok bere bizitzaren zati handi bat hodei artean eman du.

Uste du poesia "egun batean eroriko zaizula", eta "babes-kapa bat bezalakoa" dela. Eta Loretok literaturaz jantzi ere egiten du: Sade gona bat, Beckett berokia, Marlene Dietrich gabardina bat eta sonata den gona ditu.

WAL

Wroclaw, 1938. Haurtzaroan ez zuen irakurtzeko aukera askorik. Etxean bi liburu bakarrik zeuden: errezeta liburu bat, eta berak erositako biblia bat, amaren atsekaberako, horren prezioaren bi frankok falta zirela ikusi baitzuen.

1960ko hamarkadaren erdialdean Patxi euskal erbesteratu politikoa ezagutu zuen Parisen. Ezkontzaren lehen urteak ezkutatuta edo erbestean igaro zituen. Demokrazia itzuli zenean, Euskal Herrira bizitzera etorri ziren. Goethe-n eta weltliteratur (mundu mailako literatura) ideian aditua, Wal-ek literaturaren kulturen arteko zubiak eraikitzeko eta bakea ereiteko gaitasunez sinesten du.

VIKI

Bartzelona, 1954. Liburuetan lore lehorrak gordetzen ditu, eta pentsatzen duena esaten du. Izena jaso zuen Josep Janés poeta katalanaren Combat del somni liburuagatik; Gerra Zibilean Maria Victòria neskalaguna hil zen arreta medikorik jaso ez zuelako, eta poetak liburu hori eskaini zion. Keinu hark markatuta bezala, Viki mediku bihurtu zen, eta bere ideien alde borrokatu da beti.

Gipuzkoan igaro zituen lehenengo garaian bere autoan bizi zen, eta auto hori Alderdi Laboristaren liburutegi ibiltaria ere zen. Probintzian zehar ibiltzen zen Leninen inguruan hizketan, eta langileen sukaldeetan panfletoak inprimatzen zituen.

ZUZENDARIA

Maria Elorza (Gasteiz, 1988) ikus-entzunezko Komunikazio lizentziatua Pompeu Fabra Unibertsitatean eta EHUko Masterra Arte Sorkuntza eta Ikerketan. 2013tik hainbat laburmetrai filmatu ditu. Bere lanek, Donostia, Málaga, Sevilla, Punto de Vista, Documenta Madrid edo Zinebi bezalako jaialdietan parte hartu dute. *A los libros y a las mujeres canto* bere lehen film luzea da. Proiektu onenaren WIP Sariak ZINEBI eta MAFIZen.

FILMOGRAFIA - LABURMETRAIAK

2020, ***Quebrantos*** (Koldo Almandozekin batera idatzi eta zuzendua)
2018, ***Ancora lucciole***
2016, ***Gure Hormek*** (Las chicas de Pasaik)
2016, ***La chica de la luz*** (Las chicas de Pasaik)
2015, ***Agosto sin ti*** (Las chicas de Pasaik)
2013, ***Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa*** (Las chicas de Pasaik eta Aitor Gametxo)

EKOIZTETXEA.
TXINTXUA FILMS

Marian Fernandez ekoizleak eta Asier Altuna zuzendariak 2008an sortutako Txintxua Filmsek zortzi film luze eta 2 telesail ekoitzi ditu.

SERIEAK

2022 ***Intimidad***
2020 ***Hondar Ahoak***

LUZEMETRAIAK

2021 ***918 GAU***
2021 ***Hondalea***
2018 ***Oreina***
2018 ***Dantza***
2016 ***Sipo Phantasma***
2015 ***Amama***
2011 ***Bertsolari***

Bi aldiz irabazi du EZAE saria (Euskadiko zinema-aretoen elkartea), euskal zinemagintzari egindako ekarpenagatik, lehiatilan egindako lanagatik, egindako ibilbideagatik eta kalitate eta originaltasun handiagatik; AMAMA 2016an eta DANTZA 2019an.



HARREMANETARAKO DATUAK

EKOIZTETXEA

TXINTXUA FILMS
Euskadi etorbidea, 53, 4A
20110, Trintxerpe, Gipuzkoa
www.txintxua.com
txintxua@txintxua.com
+34 943 39 33 80

PRENTSA ETA KOMUNIKAZIOA

Andrés García de la Riva
escribe@nuevecartas.com
andresgdelariva@gmail.com
+ 34 672 376 162

TXINTXUA

films